

Bakearen prezioa

Euskal Herriaz ari garenean, jakinaren gainean gauden arren, gauzak errepikatu egin behar izaten dira sarri eta ahal bada didaktikoki; esan erraz ulertzeko eran, bati-bat, euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez dutenentzat. Euskaldunok zer izan ginen, zer egin ziguten (konkista eta genozidioa), egun nola gauden eta nora goazen (helburuak) argi eduki behar ditugu. Abertzale egiten gaituen tradiziozko herri kontzientzia daukagu gehienok, baina gure historiaz jabetzea eta berau barneratzeak beste bultzada bat emango liguke.

Euskal gatazka deitzen dioten horrek 500 urteko historia du. Ez zen ETArekin jaio, horrela saldu nahi diguten arren. Arazoaren jatorria aspaldikoa da. Euskal Herria (Nafarroako Erresuma) Europako estatu libre eta subiranoa izan zen bere garaian eta Gaztelako (Espainia) tropek, indar bortitzak erabiliz, independentziarekin batera dena lapurtu ziguten: euskal identitate nazionala, biziraupen kulturala, erabakitzeko eskubidea, bakea.. Beraz, etorkizunean benetako bakea lortu nahi bada eta Estatu espainolak egonkortasun politiko iraunkorra eduki nahi badu, ezinbestekoa zaio Euskal Herriari dagozkion eskubideak onartzea. Eskubideak eta bakea ezin daitezke banandu, lotura estua dute bien artean, amaren haurdunaldia zilborresteak lotzen duen bezala.

“Bakea” hitza sinplea den arren, bertsio asko ematen zaizkio bakoitzaren interesen arabera. Hona hemen kontakizuna: bakearen eta Jainkoaren izenean, bakean bizi diren herriei bakea hautsi, gerra eginez, eta dena suntsitu eta gero garaile atera ondoren, beraiek nahi duten “bakea” ezarri. Argi eduki behar dugu inposiziozko “bakea” indarkeria dela. Historiari begiratzen badiogu, horixe da hain zuzen Euskal Herriari gertatu zitzaiena. Espainiaren egungo “Una, grande y libre” hori, euskal herritarren odolez gorrituta dago, batzuen zorionerako eta euskaldunon kalterako, tamalez. Fernando errege “Katolikoak” (1512) nahiz Mola eta Franco jeneralek (1936...) Jainkoa inplikatu zuten, bakearen izenean herriak okupatuz herritarrak hiltzeko eliz hierarkiaren babesaz.

Niri beti gustatu izan zait gauzen zergatia jakitea, hori delako ondo ikasteko biderik onena. Denok dakigun bezala, bizikidetzarako plana eginda dago eta hastear egon daiteke. Indarkeria sufritu duten biktimak eskoletan izango omen dira beraien bizipenak kontatzeko, eta gehien bat, indarkeri mota bat deslegitimizatzeko, ETArekin alegia. Nik neure aldetik errespetu handia adierazten diet biktimei. Baina, hemen dena kontatu behar da, eta ez **“pelikulara”** amaiera bakarrik. Bakerik ez egoteko hona ekarri gaituen historia ere bai.

Nork jarri behar dio bakeari prezioa? Gogoko izaten ditut boteretik egiten diren adierazpenak gogoratzea. Espainiako gobernuei (Aznar, Zapatero) maiz entzun izan diet honelakoak esaten: “La paz si, pero no a cualquier precio”, “No habrá ninguna contrapartida política”, “El nacionalismo vasco nunca conseguirá sus objetivos con ó sin ETA”... Beraien “bakearen” izenean, gure bakeari prezioa jartzen dioten merkataritza hauek daude zerrendan: gobernuak, polizia, fiskalak, magistratuak, Auzitegi Nazionala, boterearen hedabideak, politikari unionistak, jaka aldatu dutenak, Espainiako Apezpikuen Batzarra..., eta bai

garesti ordaindu ere, eta ordaintzen; atxiloketak, inkomunikazioak, torturak, bizi osoko espetxe zigorrak, ilegalizazioak, hilak, desagertzeak, iheslariak..

Demokrazi batean inola ere ezin da onartu, gutaz, hemengoa ez den beste gizarte batek (Espainiak gure kasuan) erabakitzea. Uste dut ez dagoela eroso bizitzerik eta ez bakerik geure herria libre ikusi arte. Menpekotasuna beste barik onartzen bada, ezingo gara inoiz pozik bizi. Estatu espainolaren jokoaren tranpa boteretik behin eta berriz errepikatzen den leloan datza; “En España todas las ideas políticas son defendibles” Zertarako? Zer lortzeko? Beste 500 urte egon behar al gara ba zain, eta oraingoan gure ideiak defendatzen? Herri honen eskubideak ez daude gehiengoaren jokoaren menpe ipintzeko.

“Eskubide historikoak berreskuratu” esaten denean, ez da erosi edo saldu behar den zerbait, edo parlamentu bateko aritmetikak erabaki behar duena, herri honi lapurtu zitzaiona (independentzia eskubidea) itzultzea baizik. Beraz, jabetza berak du soilik, eta ez beste inork. Printzipio demokratiko naturala da.

ETA duela 50 urte sortu zen. Egun, ahots anitz dira behin betirako armak uzteko eskatzen ari zaienak. Hala izatekotan, adostutako amaiera izan beharko luke nire ustez, eta ez polizialki garaitu nahi izatea, umiliatuz, gero trofeo bezala politikoki erabiltzeko. Bide horretatik ez dator soluziorik eta ez bakerik. Komunikabideen aurrean maiz agertzen zen Zapateroren Gobernuak, esanez: “Para hablar con ETA, lo primero que tiene hacer es dejar de matar”. Iritsi da garaia, tokian zaudete...

Egun, politika giroan, geldiezina bilakatzen ari den mugimendu anitz ematen ari dira: ETArekin su etenaren iragarpena (protagonismoa herriarena izan behar duela esanez) Bruselako adierazpenarekin konpromisoa hartuz, Gernikako bakearen eta elkarrizketaren aldeko akordioa, Bilboko manifestazioa, Donostiako Miramar Jauregian sinatutako “Autodeterminazio eskubidearen” aldeko manifestua, Iruñan independentziaren aldeko martxa berdea, “Torturarik ez” lelopean Donostian egindako azken manifestazio erraldoia... Tren honi ezin diogu ihes egiten utzi. Beraz, independentisten (soberanisten) batasuna ezin bestekoa da une honetan, demokratikoki Estatuari aurre egiteko.

Autodeterminazio eta independentzia eskubideak aldarrikatzen ari gara urteetan zehar eta beraiek esan beharko lizkigukete ukazioaren arrazoiak. Beraien “demokraziak” ez, baina historiak arrazoa ematen digu. **Bakearen prezio bakarra Herri honi dagozkion eskubideak onartzea da.** Luze joango da, gogorra izango da, baina iritsiko da.

*Pello Aramaio Etxaburu
Preso ohia .*